

Jaietako abesti eta irudi berriak

Txupinazoa bota aurretik aurkeztuko ditu Jai Batzordeak bihar, gaueko 22:00etan

Bermeoko aurtengo jaiak hainbat berrikuntzarekin datoz. Alde batetik, andramarietarako bereziki konposatu duten abestia aurkeztuko dute; eta, bestetik, erraldoi berri bi ere kaleratzeko asmoa dute bermeotarrek. Xixili erreginarekin batera, beraz, *Arrantzalea* eta *Neskatila* izeneko irudi erraldoiak izango dira, jai giroa izango den txoko guztietan.

«Antzina, On Fernando eta Andre Isabel errege-erreginak ziren Bermeoko erraldoiak. Baina, urte askotan, bertokoak diren erraldorik gabe egon gara. Hori dela eta, geureak diren irudiak egitea aipostzat jo dugu», baieztatu dute Udala Kultura Batzordeko kideak.

Arrantzalea eta *Neskatila* erraldoiek jaien hasierarekin batera erakutsiko dute euren aurpegia. «Ez dugu aurreratu nahi erraldoien itxurari buruzko ezer», diote. Gure aldetik, jakin ditugun datu bakarrak hauek dira: Kukubiltxo taldeko lagunek diseinatu dituztela aipatutako bi erraldoiak, eta bakoitzak hiru metroko altuera duela.

Jaietarako abestia kaleratuko dute

Maskota eta irudiekin batera, musika eta kanta ditugu edozein jai egiteko nahitazko beste osagarriak. Andramarietako jaien inguruan ere badira hainbat abesti ezagun, herritarren euren sormenetik jaiotakoak, gainera.

Betiko kanten bilduma hori beste berri batekin osatuko dute orain. *Egunaro, egunaro kalien* izena du, eta CD formatuan kaleratuko du Bermeoko Udala. «Tabernetan banatzen hasiko gara, eta herritarren eskura ere jarriko dugu, euro bitan», azaldu dute.

Abestiaren musika Xabi Abu-



Xixili erreginarekin batera, *Arrantzalea* eta *Neskatila* erraldoiak izango dira jaietan. Argazkian, Xixili bi herritarrekin.

rruzagak konposatu du eta hitzak Iñaki Aurrekoetxearenak dira. Dena den, beste ahots batzuek ere parte hartu dute abestiaren grabaketan. Joseba Tapia eta Iratxe Ibarra nagusitzen badira ere, Bingen Fernandez txirrindularia, Musika Eskolako

HERRI IZAERA

Jaietako abestia egiteko hainbat bermeotarrek hartu dute parte

irakasleak eta beste herritar batzuek ere hartu dute parte *Egunaro, egunaro kalien* kantuaren grabazioan.

«Bermeotarren izaera islatzen duen abestia egitea lortu dugu», diote Bermeoko Udaleko kultura arduradunek.

'Egunaro egunaro kalien'

Laminen puntetik zuzenien giruek berbiztu dauenien mahoie jantzitze gonapien Lameran sartu da jente artien.

Irrintzi artien hor Xixili kendu dau galbanie zapidxe imini jai itsosuen, jai baserriidxen egunaro egunaro kalien.

Gaztelugatxeko Doniene bedeinkatu gagizula lehorrien be bermiotarra lagun artien egunaro egunaro kalien.

Itsosue, lurre ta harridxe Bermeen topa lekizu Euskal Herriidxe herri aske ta euskaldunien egunaro egunaro kalien.

Atrakaizu txo batela! portuen dala martxie gaur libre dozu galtzie Xixili topako zu Andramaidxetan!

Izaro zaindari maitagarri itsotxoridxe dinotsu hamengo barri nekien zantzurik ez danien egunaro egunaro kalien.

Non ete Demiku, non Almike eguzkidxe Ogoñotik dabil kikuke gaur bat Urdaibai! gu bittartien egunaro egunaro kalien.

Atrakaizu txo batela!..

Alabatxi! Arrainek be etxerako ordue dakoila! Zer dinostazu! On trankil!, Xixiligaz jungo nai-eta!

Atrakaizu txo batela!...(bir)berriz erre barik.

KAFE ANTZOKIA

Askatasun bidea, 11

ETXEPE

Nardiz tar benancio, 21
Bermeo
Tfnoa. 94 688 32 71

Elektrizitatea & Argiztapena

Jon Ander

Bizkaiko Jaurerria, 2
Tel.-Faxa: 94 688 46 11
48370 - Bermeo - Bizkaia

Berritzeak, Etxebizitzak, Txaletak,
Bulegoak, Pabiloiak, Mantentzea.

ASOL ZUBIA ZERAMIKAK

BILDOSAK **AXULELUAK** **PABESA**

Teodoro Anasagasti, 2 baixua • Tel./Faxa: 94 618 68 61 • Mobile, 657 796 444

HAMBURGUESERIA GAI-SAI

ARRESI KALEA, 28-30
TELE: 94.688.49.98

B E R M E O
4 8 3 7 0